



MEMORIA
2017

LIBURUTEGIAK



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



LIBURUTEGIAK



© Gorka Estrada

Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusia.

Liburutegi Sarea Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartu zen 2016an, eta esan daiteke 2017an ondo ekin geniola egokitze-prozesuari programa informatiko berria kudeatzeari dagokionez, eta lanean jarraitzen dugula Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen antolakunde-egitura hobetzeko.

Bi bilera egin genituen Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmena aztertzeko; besteak beste, Opac Absysnet bidezko lineako informaziorako irispidearen arazoa aztertzeko, Donostiako erabiltzaileek behin eta berriz eskatu baitziguten aurreko sistemara itzultzeko, hots, Vufind-era. Zenbait hobekuntza egin eta OPACen bertsioa aldatu arren, hori ez da aski. Izan ere, OPAC edo katalogoa online zerbitzu oso garrantzitsu bat da gaur egun liburutegi publikoentzat, eta argia eta intuitiboa izan behar du.

Donostiako Liburutegi Sareak hiri honetako Koldo Mitxelena Liburutegiarekin bateratzeko lanean jardun zuen 2017an. Donostiako Liburutegi Nagusi bakar bat diseinatzeko lan teknikoa egin zen, zeina egungo Koldo Mitxelena Kulturunean egongo bailitzateke. Bi liburutegiek bat eginez gero, gaur egun zeinek bere aldetik eskaintzen dituen zerbitzuak batu eta emendatu egingo lirateke.

Baztertu egin zen bat egite fisikoa, antolakuntza- eta titulartasun-arazoak zirela eta, baina beti bezala jarraituko dugu lanean helburuak bateratzeko, liburutegi-zerbitzuen bikoiztasuna saihesteko eta herritarrak jartzeko betiere gure zerbitzuaren ardatz.

Nahiz eta aldaketa informatikoa egin eta Tabakalerako Ubik liburutegi berria ireki, datuek argi adierazten dute 2017an ere udal liburutegiak garrantzitsuak izan zirela donostiarrentzat.


Bisitak eta maileguak

Gure liburutegiek **901.965 bisitari** izan zituzten.

Maileguak, berriz, **461.000** izan ziren. Eta liburu digitalen maileguak, **5.828**.

Erosketei dagokienez, **32.106 dokumentu** berri sartu ziren funtsean. Berritze-kuota % 5,90ekoa izan zen. Funtsen bilduma ona izateak bereizten du liburutegi-sare bat gaur egun diren kultura-ekipamendu ugarietatik.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean, **78.316** lagun daude izena emanda Donostiako Liburutegi Sarean, eta horietako **% 35** bazkide aktiboak dira, eta erabili egin zuten mailegu-zerbitzua 2017an.



© Gorka Estrada

Liburutegi Nagusian 232.118 bisita izan ziren.



LIBURUTEGIAK



© Gorka Estrada

Kontxako arkupeetan aurtengo udan lehen aldiz martxan jarritako Eguzkitekak.

Proiektuak

2017ko proiektu nagusia **Eguzkitekak** izan zen, Kontxako pasealekuko hegalean egon ohi den udako liburutegia, erlojuen aldean, hots, La Rotonda diskoteka zenaren parte batean, non irakurketa-gune bat sortu baitzen era guztietako jendearentzat.

Liburutegi hori hondartzan kokatzea irakurketarako gune berriak bilatzeko liburutegi-politikan sartzen da, Kontxako hondartza puntu neuralgikoa baita Donostiako udan, eta itsasoari begira irakurtzea da eskaintzen den zerbitzu berria.

Eguzkitekak oso ordutegi zabala izan zuen; uztailaren 7tik abuztuaren 31ra arte egon zen irekita, astelehenetik igandera eta 11:00etatik 19:30era. Arratsaldero, 17:00etan, Lur Kortak ipuin-kontaketa saioa egiten zuen haurrentzat. Liburuak hondartzara eraman zitezkeen han irakurtzeko, eta liburutegia itxi aurretik itzuli behar ziren.

Hondartzako liburutegia eratzen zuten elementu fisiko guztiak -liburu-apalak, mahaia eta aulkiak- erretiratu egiten ziren eguna amaitzean, horixe eskatzen

baitu indarrean dagoen Kosten Legeak, eta biharamun goizean berriro ipintzen ziren. Hartara, hegaleko pasabidea libre uzten zen.

Bilduma 800 bat liburu osatu zuten, eta aisialdirako eta eguneko bisitarientzako liburutegi baten ideari erantzuten zion; batez ere, literatura argitaratu berria (% 76) eta informazio-liburuak, hala nola Donostiari buruzko argitalpenak eta abar (% 24).

Baziren egunkariak ere, Donostiakoak, Euskal Herrikoak, Espainiakoak eta nazioartekoak, bai eta dibulgazio-aldikariak ere. Guztira, 51 titulu eskura. Bildumaren parte bat helduentzat zen (% 58), eta beste parte bat haurrentzat (% 42). Banaketa horretan, irakurketa errazeko liburu sail bat sartzen zen, irakurtzeko zailtasunen bat dutenentzako modukoa.

Hizkuntza-banaketaren aldetik, % 29 euskaraz ziren, % 54 gaztelaniaz, % 9 ingelesez eta % 8 frantsesez.

Eguzkitekaz gainera, Liburutegi Zerbitzuak badu beste **uda-liburutegi** bat ere, **Urgullen**, Damen Bateria. Duela hogeitun urte ireki zen lehen aldiz, eta leku ezin hobea izaten jarraitzen du irakurtzeko. Urgulleko liburutegiak

prentsa eta liburuak irakurtzeko alde bat du, Interneterako sarbidea ere ematen du, bai eta mailegu-zerbitzua ere, Donostia Kulturako sareko beste liburutegiek bezala, eta haurrentzako jarduerak astero.

Bi liburutegiok, Eguzkitekak eta Urgulleko liburutegia, urte-sasoi batzuetan baizik ez dira egoten zabalik. Eguzkitekaren kasuan, uztail-abuztuaren urtean bitan irekitzen da: Aste Santu eta Pazkoan, eta udan, uztail-abuztuaren.

Beste proiektu tekniko oso garrantzitsu bat ere burutu zen 2017an: Mandasko Dukearen liburutegiko funtsak egokitzea eta ordenatzea. Liburuak garbitzeari ekin zitzaion, behar bezala gordetzeko, eta bizkarreko etiketak kentzeari, liburu zaharretan ez baita itsatsi behar etiketak. Udal liburutegia 1874an fundatu zen, Euskadiko lehenengoetako bat da, eta **87.760 dokumentu**ko ondare-bilduma du.

Argitalpenei dagokienez, **sareko orri-markatzailea** nabarmenduko dugu, urtero bezala. 2017an, Jokin Mitxelena ilustratzaileak egin zuen. Gainera, 2017ko IrakurLee gida



Ipuin maratoia.

argitaratu genuen, <https://www.donostiakultura.eus/images/publicaciones/irakurlee2017.pdf>, familia osoarentzako erreferentzia bibliografikoz osatua.

Hurrekin irakurketa-dinamizazio lana egiten jarraitu zen. Nabarmenezkoa da batez ere urte osoan zehar izandako programazioa: **Liburu Baby Kluba**, hiru urte arteko haurrentzat, Mestiza elkartearen lankidetzarekin; **Ipuinaren ordua** izeneko ohiko jarduera, 2-4 urteko haurrentzat; **Irakurketa-kluba**, 6 eta 8 urte artekoentzat, **Galtzagorriren Bularretik Mintzora** programaren barruan; **Irakurketa digitalerako kluba**, 9-10 urteko aurrentzat. Saiotetan, 20 haur izan ziren batez beste, haiei lagun egiten zieten helduez gainera. **Ipuin kontalarien**

III. maratoia ere egin zen. Lau saio, eta 120 lagun bildu zituzten. Jarduera hori sendotu egin zen. Prestakuntzari dagokionez, berriz, EHUKo Udako Unibertsitatearekin lankidetzan, "Haur literatura 0-8 urte bitartean" lantegia antolatu zen, eta **Oihana Etxegibel**, **Juan Kruz Igerabide** eta **Itziar Zubizarreta** izan ziren irakasleak. Bi saio, eta 20 lagun bildu zituen bakoitzak.

Haur literaturari buruzko **Uhartearen altxorra** erakusketa San Telmo Museoarekin lankidetzan antolatu zen, eta Haur Liburutegiak ikastetxeekin ohi duen lankidetzaz sendotu zuen. 28 taldek, 604 ikaslek guztira, bi bisita egin zituzten Haur Liburutegira, eta liburutegiek hautaturiko liburu-sailak eraman zituzten maileguan

beren ikasgeletara.

Eduki digitalen sorkuntzaren sailean, Hiriburutzak utzitako ondarea landu zuen Liburutegi Zerbitzuak, hau da, Wikipedia, Wikiliburutegiak programa eta haur literaturari buruzko artikulua sortuz, idazleei buruzko artikuluez gainera. Wikipedialariaren figura kontratatzeari eta liburuzainen taldeak egindako lanari esker, bultzada ederra eman zitzaion proiektuari. Abenduaren 4an zabalkunde-eguna egin zen Euskararen Egunaren barruan. Bestalde, liburuzainak zerbitzuko bi blogak martxan edukitzeaz arduratu ziren. Jardueren zabalkunderako Twitter sare sozialak oso ondo funtzionatu zuen, eta emendatu egin zen jarraitzaileen kopurua.



Ipuinaren ordua.



Jarduerak

Jardueren egutegia **Poesiaren Nazioarteko Eguna**rekin hasi zen, martxoaren 21ean. Liburutegiak egun hori indartu nahian ari dira, Kultur Ekintza sailarekin batera. Ernest Lluch Kultur Etxeak eta Liburutegi Nagusiak poesia-programa bat antolatu zuten 20 eta 21erako.

Egun nagusia **Liburuaren Nazioarteko Eguna** izan zen, noski, apirilaren 23a, noiz eta, Gipuzkoa plazako ohiko azokaz gainera, zenbait jarduera antolatu baitziren, gehienak ere ludikoak, kontuan izanik 2017an egun hori igandean egokitu zela. **KontuKantoik Bazen noizbait, nonbait, norbait** ikuskizuna aurkeztu zuen, eta ikuskizun horretan banatu zitzaizkien sariak 2016an mailegu gehien egin zituzten hamar haur irakurleei. Orobat, **Ana Apika** kontalariak eta **Intxixu Valbuena** gitarra-jotzaileak familientzako ipuinak kontatu zituzten. Helduek eduki literarioko goiz-ibili bat egiteko aukera izan zuten **Pasaia**ra, herri horretan kokatutako eleberrietan zentratua. Besteak beste, **Harkaitz Canoren Pasaia Blues**, **Raúl Guerra Garridoren Cacereño**, **Ibón Martínen El faro del silencio** eta **Dolores Redondoren** lehen eleberria, **Algo que nunca debió ser**. Pasaia aukera eman zuen, halaber, **Victor Hugo** gogoratu eta haren museo-etxea bisitatzeko. Arratsean, azokari amaia emateko, Joseba Irazokiren kontzertua izan genuen.

Liburuaren Egunekeo jarduerak apiril osoan zehar egin ziren. **Itzal Zaunka** kontzertua azpimarratu behar da, Antzoki Zaharrean, **Jexuxmai Lopetegi eta Noizbehinka** Bandarekin, Harkaitz Cano eta Antton Olariagaren **Itzal Zaunka** disko-liburuan oinarritua.



© Fernando Martínez Saraqueta

Kirmen Uriberekin solasaldia.

Liburutegiaren Eguna **Big Data, kultura eta liburutegiak** hartu zituen gaitzat; zenbait hitzaldi egin ziren, aurten Tabakalera, hiru erakunde antolatzaileen artean ezarritako txanden arabera (Donostia Kultura, Koldo Mitxelena eta Tabakalera). Literatura-programazioei dagokienez, **Literaktum** nabarmendu behar, zeinak lehen aldiz haurrei eskainitako sail berezi bat izan baitzuten: **Literaktum Txiki**. Liburutegi Zerbitzuak **Urrezko giltza** saioa antolatu zuen, non **Patxi Zubizarretak** eta **Jokin Mitxelenak** jardun baitzuten. Helduentzako programazioa anitza izan zen; nabarmentzekoak, esate baterako, **Pasaian Victor Hugo gaitzat hartuta egindako paseoa**, haren museo-etxea bisitatzuz, eta **Madame Bovaryri buruzko solasaldi-afaria**, Gastronomiazko Euskal Anaiartean. Gaur egungo literaturari buruz, honako jarduera hauek antolatu ziren: **Uxue Alberdiren Jenisjoplin** berriki argitaraturiko liburuari buruzko solasaldi-aurkezpena, **Iván Repila** eta **Sergio del Molinoren** arteko solasaldia, Antonio Casado moderatzaile, eta **Istiritzetik**

Etiopian barrena errezitala. **Literatura-solasaldiak** dira oraindik ere liburutegi-zerbitzuaren apustu sendoena. Gaur egun, helduentzako **lau solasaldi** izaten dira **hilero, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez**. Euskarazko eta gaztelaniazko taldeetan, urtean bitan, gonbita egiten zaie autoreei beren liburuaren inguruko solasaldian parte har dezaten. 2017an, **Ana Malagón, Elvira Navarro** eta **Kirmen Uribe** izan genituen gurekin.

Literatura-jardunaldien barruan, poesiak bere leku berezia izan zuen. Nazioarteko Eguna ospatzeaz gainera, **gazteentzako poesia lehiaketa** bat egin zen, Balea Zuria argitaletxearekin lankidetzan. **Poesia Orduak** errezitaldiek, Euskal Jaiei barruan eta Euskal Idazleen Elkartearekin batera antolatuz, oso harrera ona izan zuten. **Poesia eta Pentsamendua** jarduerari dagokionez, Juan Ramon Makuso, Felipe Juaristi, Pello Otxoteko eta Aritz Gorrotategik koordinatu zuten, eta Foru Aldundia eta Chillida Leku izan zituen laguntzaile; hartara, bi eguneko jarduera-programa bat antolatu ahal izan zen.



LIBURUTEGIAK

LIBURUTEGI-ZERBITZUA ZENBAKITAN



FUNTSAK	544.502
----------------	---------

SARBIDE LIBREKO FUNTSA	456.742
-------------------------------	---------

FUNTS HISTORIKO KATALOGATUA	87.760
------------------------------------	--------

FUNTSAK EUSKARRIAREN ARABERA

LIBURUAK	433.826
----------	---------

CD	35.817
----	--------

CDROM	3.413
-------	-------

DVD	56.750
-----	--------

BIDEO JOKOAK	1.307
--------------	-------

MAPAK	209
-------	-----

MATERIAL GRAFIKOA	3.435
-------------------	-------

PARTITURAK	7.791
------------	-------

ALDIKAKO ARGITALPENAK	1.820
-----------------------	-------

ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK	32
---------------------------	----

EREADER-IPAD	102
--------------	-----

FUNTSAK HIZKUNTZAREN ARABERA

EUSKARAZ	99.346
----------	--------

GAZTELANIAZ	392.265
-------------	---------

BESTERIK	52.891
----------	--------

ALTAK	32.106
--------------	--------

BAJAK	9.422
--------------	-------

BILDUMAREN HAZKUNDEA %TAN	4,69
---------------------------	------

BILDUMAREN ERABERRITZEA %TAN	5,90
------------------------------	------

MAILEGUAK

MAILEGUAK	402.249
-----------	---------

ERABERRITZEAK	58.751
---------------	--------

GUZTIRA	461.000
---------	---------

MAILEGUAK EUSKARRIAREN ARABERA

HELDUENTZAKO LIBURUAK	166.915
-----------------------	---------

HAURRENTZAKO LIBURUAK	91.349
-----------------------	--------

CD	13.324
----	--------



LIBURUTEGIAK

LIBURUTEGI-ZERBITZUA ZENBAKITAN

CDROM	1.023
DVD	111.283
BIDEO JOKOAK	4.664
MAPAK	1
PARTITURAK	1.647
ALDIZKAKO ARGITALPENAK	6.248
ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK	5.602
EREADER-IPAD	193
MAILEGUAK HIZKUNTZAREN ARABERA	
EUSKARAZ	51.519
GAZTELANIAZ	321.290
BESTERIK	29.440
E-LIBURUTEGIKO MAILEGUAK	
BISITAK	
BAZKIDEAK	
2017. URTEKO BAZKIDE BERRIAK	5.551
2017KO BAZKIDE AKTIBOAK	%35

ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK

INTERNET/CDROM SARBIDEA	278
----------------------------	-----

OPAC	38
------	----

INTERNET / CDROM KONTSULTAK

KZ ARETOETAN	66.358
--------------	--------

ARETOAN	51.095
---------	--------

WIFI	69.588
------	--------

OPAC KONTSULTAK	516.652
-----------------	---------

WEB KONTSULTAK	175.151
----------------	---------

HEMEROTEKA DIGITALEKO KONTSULTAK.	353.739
--------------------------------------	---------

LIBURU DANTZA KONTSULTAK	3.225
-----------------------------	-------

LIBURUTEGIEN AHOTSA KONTSULTAK	3.760
-----------------------------------	-------

JARDUERA KOPURUA	997
------------------	-----

JARDUERETARA ETORRITAKOAK	26.806
------------------------------	--------

ERAKUSKETAK	8
-------------	---

ERAKUSKETETARA ETORRITAKOAK	33.482
--------------------------------	--------

(1) Ez dira kontuan hartu Amundarain Mediatekako funtsak.




LIBURUTEGIAK



LIBURUTEGI NAGUSIA

Sorrera urtea	Sail historikoa 1874
	Alderdi Eder 1999
FUNTSAK	131.264
SARBIDE LIBREKO FUNTSAK	61.282
FUNTS HISTORIKO SAILKATUA	69.982
ALTAK	4.873
BAJAK	843
MAILEGUAK	108.788
MAILEGUAK EGUNEKO	367,53
KONTSULTAK FUNTS HISTORIKOAN	4.299

BISITAK	232.118
BISITAK EGUNEKO	784,18
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	38
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	36.088
EKINTZA KOPURUA	163
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	7.205
ERAKUSKETAK	7
ERAKUSKETETARA BERTARATUTAKOAK	32.645



LIBURUTEGI NAGUSIA HAUR SAILA Haur Liburuaren Dokumentaziogunea

Sorrera urtea	1970 (1994)
FUNTSAK	44.367
SARBIDE LIBREKO FUNTSAK	32.356
FUNTS HISTORIKO SAILKATUA	12.011
ALTAK	2.406
BAJAK	552
MAILEGUAK	26.353
MAILEGUAK EGUNEKO	92,47
BISITAK	37.685

BISITAK EGUNEKO	132,23
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	10
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	4.900
EKINTZA KOPURUA	190
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	3.865
ERAKUSKETAK	1
ERAKUSKETETARA BERTARATUTAKOAK	837




LIBURUTEGIAK



Sorrera urtea	2010
FUNTSAK	29.056
ALTAK	2.847
BAJAK	979
MAILEGUAK	45.491
MAILEGUAK EGUNEKO	152,14
BISITAK	59.093



BISITAK EGUNEKO	197,64
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	17
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	9.887
EKINTZA KOPURUA	49
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.864



Sorrera urtea	1987
FUNTSAK	18.961
ALTAK	976
BAJAK	100
MAILEGUAK	7.490
MAILEGUAK EGUNEKO	33,59
BISITAK	20.995



BISITAK EGUNEKO	94,15
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	6
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	1.469
EKINTZA KOPURUA	27
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	435



LIBURUTEGIAK




**CASARES-TOMASENE K.E.
LIBURUTEGIA
(Altza)**



Sorrera urtea	1986 (2006)
FUNTSAK	37.122
ALTAK	2.523
BAJAK	633
MAILEGUAK	36.953
MAILEGUAK EGUNEKO	124,84
BISITAK	69.716

BISITAK EGUNEKO	235,53
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	30
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	14.534
EKINTZA KOPURUA	53
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	821



**EGIA K. E.
LIBURUTEGIA**



Sorrera urtea	1997
FUNTSAK	33.266
ALTAK	1.741
BAJAK	1.025
MAILEGUAK	18.953
MAILEGUAK EGUNEKO	84,99
BISITAK	27.309

BISITAK EGUNEKO	122,46
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	31
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	9.599
EKINTZA KOPURUA	93
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.284



LIBURUTEGIAK



Sorrera urtea	2001
FUNTSAK	45.679
ALTAK	3.036
BAJAK	1.171
MAILEGUAK	60.556
MAILEGUAK EGUNEKO	204,61
BISITAK	119.219

BISITAK EGUNEKO	402,77
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	44
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	29.924
EKINTZA KOPURUA	122
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	2.296



Sorrera urtea	2000 (2011)
FUNTSAK	43.566
ALTAK	2.660
BAJAK	957
MAILEGUAK	35.715
MAILEGUAK EGUNEKO	160,16
BISITAK	62.511

BISITAK EGUNEKO	280,32
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	40
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	23.077
EKINTZA KOPURUA	25
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.025



LIBURUTEGIAK

LARROTXENE K.E. LIBURUTEGIA (Intxaurrondo)



SORRERA URTEA	1988
FUNTSAK	14.468
ALTAK	980
BAJAK	378
MAILEGUAK	7.920
MAILEGUAK EGUNEKO	35,52
BISITAK	11.243

BISITAK EGUNEKO	50,42
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	7
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	3.668
EKINTZA KOPURUA	10
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	2.173

LOIOLA K.E. LIBURUTEGIA




Sorrera urtea	1987
FUNTSAK	31.927
ALTAK	2.063
BAJAK	521
MAILEGUAK	16.526
MAILEGUAK EGUNEKO	74,11
BISITAK	24.680

BISITAK EGUNEKO	110,67
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	8
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	2.681
EKINTZA KOPURUA	37
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	496



LIBURUTEGIAK


LUGARITZ K.E. LIBURUTEGIA (Antigua)



Sorrera urtea	1993
FUNTSAK	31.603
ALTAK	2.000
BAJAK	431
MAILEGUAK	21.221
MAILEGUAK EGUNEKO	95,16
BISITAK	35.421

BISITAK EGUNEKO	158,84
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	27
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	5.918
EKINTZA KOPURUA	44
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	905

OKENDO K.E. LIBURUTEGIA (Gros)




Sorrera urtea	1987 (2004)
FUNTSAK	40.991
ALTAK	2.856
BAJAK	1.580
MAILEGUAK	65.653
MAILEGUAK EGUNEKO	221,80
BISITAK	132.457

BISITAK EGUNEKO	447,49
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	40
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	34.140
EKINTZA KOPURUA	109
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	2.495



LIBURUTEGIAK



Sorrera urtea	1997
FUNTSAK	5.098
ALTAK	207
BAJAK	105
MAILEGUAK	423
MAILEGUAK EGUNEKO	5,42
BISITAK	3.325

BISITAK EGUNEKO	42,63
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	4
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	170
EKINTZA KOPURUA	19
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	519




Sorrera urtea	2017
FUNTSAK	851
MAILEGUAK	635
MAILEGUAK EGUNEKO	11,34

BISITAK	5.114
BISITAK EGUNEKO	91,32
EKINTZA KOPURUA	56
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.423




LIBURUTEGIAK



UDAL MUSIKA ESKOLAKO LIBURUTEGIA

Sorrera urtea		BISITAK	50.186
FUNTSAK	18.579	BISITAK EGUNEKO	240,12
ALTAK	1.243	ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	8
BAJAK	68	INTERNET KONTSULTAK / CDROM	5.818
MAILEGUAK	5.536		
MAILEGUAK EGUNEKO	26,49		



SAN TELMO MUSEOKO LIBURUTEGIA

Sorrera urtea	2011	MAILEGUAK EGUNEKO	10,05
FUNTSAK	15.199	BISITAK	2.316
SARBIDE LIBREKO FUNTSAK	9.432	BISITAK EGUNEKO	12,00
FUNTS HISTORIKO SAILKATUA	5.767	ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	2
ALTAK	763	INTERNET KONTSULTAK / CDROM	110
BAJAK	78		
MAILEGUAK	1.939		



LIBURUTEGIAK


CRISTINA ENKO INGURUMEN BALIABIDEEN LIBURUTEGIA



Sorrera urtea	2006
FUNTSAK	2.505
ALTAK	80
MAILEGUAK	110
MAILEGUAK EGUNEKO	0,30

BISITAK	4.103
BISITAK EGUNEKO	11,37
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	2
INTERNET KONTSULTAK / CDROM	3.639

AMUNDARAIN MEDIATEKA. ARANTZATZUKO AMA IKASTOLA



Sorrera urtea	2006
MAILEGUAK	728
MAILEGUAK EGUNEKO	
BISITAK	4.474
ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK	2

INTERNET KONTSULTAK / CDROM	1.419
EKINTZA KOPURUA	56
EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK	1.423